

# Prest!



BERBETAN: **PAUL BILBAO** EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSI OHIA

ERREPORTAJEA: **PREST! ALDIZKARIAREN 250.A BARKUA: URRUTITIK ERE, BETI PREST!**

6-247-248-249-250



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



# Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Itsaso Larramendi Elexgaray - Jon Zubieta		<b>Iritzia</b>	4
	Mikel Santana		<b>Gureak kanpoan</b>	5
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> PREST! aldizkariaren 250.a <i>Hilabete honetako PREST! aldizkariaren 250. zenbakia da. 2001eko martxoan argitaratu zen gure herriko albisteen berri ematen duen lehendabiziko alea. Geroztik, hamaika elkarrizketa, artikulua eta erreportaje eskaini ditugu deustuarrentzako. Bada, efemeridearen abaguneaz baliaturik, gure hedabidearen ibilbide historikoaren jarraipena egingo dugu.</i>			6
	Elkarguneak Arangoitiko auzoan		<b>Eskolak</b>	10
	Zergatik ez da Deustu herri euskalduna?		<b>Behin batean</b>	12
	Herria irabazle, Deustuko KM Bertikaleko lehenengo edizioan		<b>Artikulua</b>	14
<b>b</b>	<b>berbetan</b> PAUL BILBAOrekin <i>2010etik 2022ra Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia izan zen Paul Bilbao. Getxotarra bada ere, Deustuko Unibertsitatean egin zituen bere unibertsitateko ikasketak, eta handik datorkio gure herriarekin duen harremana. Geroztik, bere ibilbide profesionala euskararen sustapenera bideratu du, hein handi batean.</i>			16
	Pedro Arrupe pasabidea (2003)		<b>Irudiak berbetan</b>	21
	<b>HEZKUNTZA</b> Ba al du euskarak lekurik ikus-entzunezkoetan?			 <b>barkua bete herba</b>
	<b>PREST! ALDIZKARIA</b> Urrutitik ere, beti Prest!			
	<b>PINTXODROMOA</b> Hamburgesa leherkorra			
	<b>KULTUR TXOTX</b> Danel Lauzirika Erkiaga eta Aimar Sorazu Roteta			

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Axular Arostegi eta Asier Cobos

**Erredakzioa:** Nerea Cubillo Urkizu, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea  
**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inaziko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inaziko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu

**Diseinua:** BO5T

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01



## Berdea da beltz berria

Irailean Europako mugikortasun astearen harira irratian entzundako titularrak zur eta lur utzi nau: autoaren erabilera murrizte aldera, Bilboko TAO zerbitzua eguerdira ere zabalduko da zentroko auzoetan.

Harridura handia sortzen dit neurri hori “esku-hartze izar” bezala hautatu izanak, beste titular asko okurritzen zaizkidalako bizilagunon eguneroko beharrei erantzun (beharrak asetu) eta mugikortasun jasangarriagoa sustatu ditzaketenak:

“Bilbaobizi zerbitzuaren ordutegia gau osora zabalduko da, metroaren eta autobusaren gaueko geldialdia osagarritzeko”; edo “Udalak lankidetzat hitzarmena sinatu du hiriko bizikleta taldeekin, bidegorria hobetzeko neurriak martxan jartzeko”; edo “Deustuko Erriberako autobus zerbitzua zentroko auzoetatik igaroko da eta 15 minutuko maiztasuna izango du”.



Itsaso Larramendi Elexgaray  
Hiriaz eta beste


Baina errealitatea da, Deustu eta San Inazio lotzen dituen pasealeku berrian ez dela bidegorriarik aurreikusi eta herritarrak, mobilizazioen eta aurrekontu parte-hartzaileen bitartez, eskatu beharrean dabiltzala.

Eta igandero Arenala dela autoen eta autobusen igarotzeari ixten den gunea, ziurrenik hirian oinez ibiltzeko dugun espazio zabal eta atseginenatarikoa, mozketaren inpaktu erreala zein den oso ondo ulertzen ez delarik. Eta Deustuko etorbidearen berrurbanizazioan jada bazeuden zuhaitz handiak moztu dituztela, oinezkoen erosotasunerako hain beharrezkoak diren itzalguneak desagerraraztea eragin duena.

Bada garaia jasangarritasun neurriak serio hartu eta herritarrekin batera elkarlanean lantzeko.



Jon Zubieta  
Sanitarra



## Urruneko eztabanda oihartzuna

Gatazka piztu da berriz ere itxuraz hain urrun dagoen Palestinako lurretan. Hala ere, honaino iristen dira oihuak eta eraikin bat bestearen atzean suntsitzen duten lehergailuen oihartzuna.

Halaber, berriz ere agerian da boteretsuek eta instituzioek luzeegi dirauen injustizia historiko horrekin bukatzeko duten borondate eza, izan borraroen lerro diskurtsiboa erreproduzituz edo nahikoa ez diren gaitzespen-adierazpen epelak eginez.

Gauzak horrela, beti legez, guri dagokigu gure kuadrilletan, auzoetan eta kaleetan egoera salatzea; alegia, hamarkadetan

zehir luzatutako sarraskiaren erantzule zuzenak eta euren konplizeak seinalatzea, Palestinar herriak pairatzen duen zapalkuntza behingoz eten dadin. Izan ere, Palestina urrunegi dagoen arren, bertako egoeraren erantzule asko uste baino gertuago ditugu, eta, alde horretatik, horiek agerian uztea da gure betebeharra.

Nahiz eta bonbak urrun erortzen ikusi, entzun ditzagun arretaz suntsipenaren eztabanda eta herri oso baten garrasiak, eta historiak sortutako munstroen aurrean koka dezagun gure burua, berandu baino lehen.

Gaur eta beti, Palestina aurrera!



## Mikel Santana

**Jatorria:** San Inazio

**Bizitokia:** Chicago, AEB

**Lanbidea:** Zibersegurtasun ingeniaria



### **Zertara joan zara AEBetara?**

Hasiera batean, Zibersegurtasun masterra egitera etorri nintzen Chicagora, IIT unibertsitatera, zehazki. Bertan, urtebetez ikasteko aukera izan nuen, baina ikasle VISA-k, F-1 izenekoak, beste hiru urtez lan egiteko aukera ematen dizu baita.

### **Zerk eraman zintuen bertara mugitzeko erabakia hartzera?**

Bilbon 23 urtez egon naiz bizitzen, eta betidanik izan dut AEBetan bizitzeko gogo, NBA saskibaloitza ligaren jarraitzaile handia izan naizelako txikitatik. Haien kultura eta bizimodua ezagutzeko irrikitan nengoan, eta aukera ezinhoba zen niretzako lan egiten hasi baino lehen horrelako esperientzia bat bizitzea.

### **Nola eraman zenuen bertako bizimodura ohitzeko prozesua?**

Lehenengo hilabeteak zailenak direla esango nuke. Familia eta lagunak faltan botatzen dituzu. Gainera, Bilbon baino 7 ordu gutxiago dira hemen, eta horrek komunikazioa modu nabarmenean zailtzen du. Bizpahiru lagunekin etorri izanak asko errazten du bizimodura ohitzeko prozesua, eta gaur egun

daukagun lagun taldean gehienak euskaldunak dira ere; beraz, etxetik hurbilago sentitzen zara.

### **Zer da orain arte gehien harritu zaituena?**

Nire kasuan hemen bizi den pertsona bakoitzaren ibilbidea zeinen ezberdina den da gehien harritu nauena. Mundu osoko pertsonak ezagutu ditzakezu hemen, beraz kultur nahasketa erraldoi bat dago Estatu Batuetan orokorrean, hiri handietan, bereziki.

### **Zeintzuk dira bi herrialdeen artean somatu dituzun antzekotasun eta diferentziak?**

Diferentzien artean, eta lehen galderan esan dudan moduan, zeinen leku ezberdinetako pertsonak ezagutzen dituzun hemen, eta bigarrena zeinen goiz jan eta afaltzen duten. Antzekotasunen artean, berriz, asko egon daitezke, baina adibidez gazteen bizimodua edo gustoko ditugun jarduerak oso antzekoak dira Euskal Herrian eta Chicagon.

### **Dagoeneko, bi urte egin dituzu bertan. Oraindik denbora luzerako geratzeko asmoa duzu?**

Hirugarren urtea hasi berri dut, eta

hemen pozik nagoela esan dezaket. Lan egiteko baimena 2025eko irailean bukatuko zait. Hala ere, urtero, uda inguruan pentsatzen dut hemen geratu edo ez, pisua urtebetez berritzea edo ez, eta askoz galdera gehiago baita.

### **Nola daramazu familia eta lagunekin egoteko ezintasuna?**

Seguruenik hauxe da gauzarik zailena. Normalean, urtean bi aldiz bueltatzen saiatzen naiz; baina, aurtan, adibidez, gabonetan soilik bueltatzeko aukera izango dut, laneko arrazoiak tarteko. Gurasoak eta anaia hemendik pasa izan dira urtean behin, baina lagunak adibidez ez ditut urtarrilaren 1etik ikusi. Noski faltan botatzen ditudala, eta ahal dugunean Whatsapp birtartez hitz egiten dugu.

### **Etxetik gauza bakarra eraman ahalko bazenu, zer izango litzateke?**

Galdera hona hau... burura etortzen zaidan lehenengo gauza janaria izango litzateke (gose naizelako seguruenik), baina horrez gain, hona hemen eramango nituzkeen bi gauza: Familia/lagunak eta San Inazioko terraza batzuk guztiok batera trago pare bat hartzeko.



Prest! 200. alerako antolatutako ekitaldi berezia.

## 250 ZENBAKI, NORANZKO BAKARRA

*Hilabete honetako PREST! aldizkariaren 250. zenbakia da. 2001eko martxoan argitaratu zen gure herriko albisteen berri ematen duen lehendabiziko alea. Geroztik, hamaika elkarrizketa, artikulua eta erreportaje eskaini ditugu deustuarrentzako. Bada, efemeridearen abaguneaz baliaturik, gure hedabidearen ibilbide historikoaren jarraipena egingo dugu.*

Testua eta argazkiak: PREST!

Ez da erronka makala 2023ko gizarte globalizatuaren baitan euskara hutsean diharduten hedabideena; beraz, zer esanik ez tokian tokiko hedabideon kasuan. Hala ere, PREST! ez zen hutsetik hasi. Alabaina, aurretik ere izan ziren Deustun euskarazko hedabideak sortzeko ekimenak. Alde horretatik, hitzek ekintzak eskatzen dituztenez, 1996an, Kazetaritzako zenbait deustuar ikaslek gure herrian gertatzen zenaren berri euskaraz emateko proiektu bat hasi zuten: Hitzartu.

Horietako bat Nerea Olaziregi dugu. Harrezkeron mende laurden baino gehiago pasa den arren, ederki asko oroitzen ditu lehendabiziko urrats horiek: “Kazetaritza ikasten ari ginen

lau lagun elkartu ginen, herri aldizkari bat sortzeko asmoz. Oso modu prekarioan, ilusio pilo batekin eta emozio handiarekin hasi ginen. Aldizkariaren filosofia edo apustua euskaraz jardutekoa eta herri aldizkariaren izaera mantentzearena zen”. Alegia, Deustu herria osatzen zuten auzoak aintzat hartu zituzten: Done Petri, Arangoiti, Erribera, Ibarrekolanda eta San Inazio. Gogoratzen duenez, lehen zenbakia egiteko lauren etxeetan biltzen ziren. Ondoren, Menditarrak taldeak Ramon eta Cajal etorbidean zuen lokalera mugitu ziren, eta haiek lagatako ordenagailu batekin egiten zuten lan: “Pentsa, lehendabiziko alearen make-tazioa eskuz egin genuen eta hala eraman genuen inprentara”.



Lehenengo Prest! egin zuen lan-taldea.

'Hitzartu' aldizkaria 1996tik 1998ra bitartean argitaratu zen. Geroago, 2000. urtean, aldizkari horrek abiatutako bideari Berbaizu Euskara Elkartek jarraitu zion (Euskara Dariolaren ondorengo dena) eta proiektu berri bat sortzeko pertsonak eta baliabideak topatu zituen. Hala, 2001eko martxoan, Deustuko jaietan, lehenengo PREST! argitaratu zen.

### Teknologiak baldintzatutako bilakaera

23 urte luzeko ibilbide honetan gauza asko izan dira, era batera edo bestera, aldizkarian aldatu direnak. Lehenik eta behin, argi dago hasierako eta egungo baliabide teknikoak ez direla berdinak. Izan ere, garapen tek-

nologikoek aurrerakuntza teknikoak ahalbidetu dituzte esparru ekonomiko guztietan; bada, kazetaritza ez da salbuespena. Alde horretatik, aldizkariaren maketazioa aurrera eramateko baliabideez gain, aldizkaria inprimatzeko eta irakurtzeko moduak zeharo aldatu dira. Gauzak horrela, mugarriz tekniko horiei segitzea aski da hedabidearen aldaketa nabarmenenak identifikatzeko.

2008an, esaterako, garaiko krisi ekonomikoaren eraginez, salto esanguratsua eman zuen hilabetekariak. Hala, 100. zenbakiaren efemeridea baliatuz, aldizkaria egun duen formatuarekin argitaratu zen lehendabiziko aldiz. "2008ko krisiak sakon eragin zigun, hausnarketa une gogorra izan



Ruper Ordorika izan zen 100. alearen elkarriketatua

zen aldizkariarentzako. Publizitate sarre-  
rak asko murriztu ziren, iragarle handiak  
desagertzen joan zirelako. Orduan erabaki  
genuen formatua aldatzea, aldizkaria txikitu  
genuen eta aukera modernizatzeko aprobe-  
txatu”, oroitu du Lur Mallea garaiko aldizka-  
riaren zuzendariak.

Harrezkero, berritasun garrantzitsuena  
Uriola webgunearen sorrerarekin etorri zen,  
2014an. Alabaina, Prest!-ek paper garran-  
tzitsua jokatu zuen, Berbaizurekin batera,  
Bilbo mailan euskara hutsean diharduen  
prentsa idatzizko hedabide bakarraren sor-  
reran; era horretan, BLB komunikazio koo-  
peratiba osatzen dute geroztik Berbaizuk,  
Batanabatuk (Berton! aldizkariaren sus-  
tatzailleak), Asapala euskara elkarteak eta  
Abante konpartsak, Prest! zein Uriola argi-  
taratzen dituztenak. Horri esker, paperean  
ez ezik, irakurleek hilabete bakoitzeko alea  
online ere irakurtzeko aukera dute.

## Pandemia baten erronka

Dagoneko hiru urte eta erdi pasa diren  
arren, guztiok dugu presente 2020ko mar-  
txoaren 14an gertatutakoa. COVID 19 izene-  
ko birus baten zabalkuntza zela eta, hasiera  
batean 15 egun iraungo zituen itxialdia eza-  
rri zuten agintariek. Gerora, osasun egoerak  
hobetzen ez zuenez, maiatzaren 2ra arte  
luzatu zuten kalera irteteko debekua. Bada,  
egoera honek gizarte osoan ondorio lazga-  
rriak izan zituela onarturik, berebiziko zailta-  
sunak eragin zituen Prest! kalera atera ahal  
izateko; are gehiago, hedabidea, dirulagun-  
tza batzuen atzerapena tarteko, bere une  
ekonomiko makalenetako batetik zetorrela  
aintzat harturik.

Garai hartan, Jone Gartzia zen aldizkariaren  
zuzendaria eta gogoan du oraindik egun  
horietako anabasa. “Oroitzen dut martxoko  
zenbakia erabat lotuta neukala Aste San-



Prest!-ek bere ibilbidean zehar izandako edukietako batzuk



tuan oporrek hartu ahal izateko; eta bat-batean konfinatu egin gintuzten. Hilabete erdialdea zela kontuan hartuta, oso denbora gutxian sortu behar izan genituen Covidarekin zerikusia zuten hainbat gai”. Gainera, edukia zeharo aldatzeko eragozpenaz gain, arazo teknikoak ere izan ziren, besteak beste, inprentaren eta Correosen banaketa zerbitzuaren etenaldia. Egoera horren adierazle da 211. eta 212. aleak online bitartez soilik argitaratu izana. “Hala ere, guk lanean jarraitu genuen. Gogoan ditut garai hartan aldizkaria eramaten genuenok egiten genituen bideo-elkarrizketak. Azken batean, bilera horiek laguntzen ziguten talde koordinazio puntu hori izaten eta lana aurrera eraman ahal izaten”, hala deskribatzen du Gartzia egun horietako lan jarduna.

Dena den, aldizkariko langile ohiak argi du garai gogor horietan argitaratutako zenbakiak ez zirela posible izango Prest! aurrera eramaten laguntzen duen kolaboratzaile-sarerik gabe. “Lantalde handi batek parte hartu zuen bolada horretako zenbakietan, nahiz eta eurek beraiek kaos horretan ere bizi”.

## Lan-sare baten erakusle

250 zenbaki, 23 urte eta erdi. Ez da, gero, marka makala. Hala ere, ibilbide hori guztia ez da soilik Prest!-eko langileen jardunaren ondorioa, baizik eta atzetik proiektua aurrera eramaten laguntzen dutenena ere. Alegia, babesleen eta kolaboratzaileen laguntzarik gabe, gaurko eguna ez litzateke posible izango; zer esanik ez Berbaizu Euskara Elkartek urte guzti hauetan emandako babesik gabe. Izan ere, azken hau baita hedabidearen sustatzaile eta babesle nagusia.



Itxialdian ere deustuarrak euren bizipenak partekatu zituzten

Bada, hilabete honetako zenbakian kolaboratzaile-belaunaldiren ekarpenak aurki ditzakegu. Txema Luzuriagak, esaterako, lehendabiziko zenbakitik ematen digu, argazki bitartez, Deustuko historiari berri. Itxaso Sainzek, bere aldetik, joan den maiatzetik bi hilabetean behin eskaintzen dizkigu bere hezitzaile ikuspuntutik hausnarketa interesgarriak.

Alde horretatik, erreportaje honek iraganari begiratzen dion arren, ezin gara orain arte lortutakoaz bizi, aurrera jarraitu beharra daukagu, Deustu berreuskalduntzeko helburuarekin jarduten, herriari herriaren berri ematen.

Gauzak horrela, ba ote hitz hauei amaiera emateko modu hoberik, aldizkariaren lehen zuzendariaren (Hektor Ortega) hitzekin baino?: “Itzela da 250. zenbakira heldu izana. Ez sinistekoa. Ibilbide luze horrek ekarpen handia egin dio Deusturi, hala euskararen zabalpenean eta euskaraz bizitzeko ahaleginean nola herri nortasunaren indartetan. Gure herria Deustu da, eta euskalduna izango da. Talaia horretatik etorkizunari arretaz begiratzeko une egokia izan daiteke, guztion ekarpenez aldizkaria indartzeko eta hobetzeko, abian diren garai berriei egokituta”.



**EUSKARAREN  
INTERPRETazio  
ZENTRO BERRIA  
BILBON,**

**ZATOZ!**

[www.euskararenetxea.es](http://www.euskararenetxea.es)

  
Euskaren Etxea

  
EUSKARAREN  
INTERPRETazio  
ZENTRO

  
Bizkaia  
EUSKAL  
EREMUEN  
ERAKUNDA



# ELKARGUNEAK ARANGOITIKO AUZOAN



**Testua eta argazkiak:** Arangoiti eskola

Ez da batere erraza, egungo bizimoduan, elkarguneak topatzea: sinkronizatu gabeko erritmo eta ordutegi pertsonalizuak daramatzagu. Sare sozial digitalak ote dira egungo elkargune nagusiak? Nola elkartu eta saretu beste modu batzuetan? Arangoiti auzoan elkartzeko bestelako gune “presentzialak” ere eraiki nahi ditugu: auzoko kaleetan elkartu eta elkarri entzun, solasaldian aritu, abestu... Zergatik ez? Horregatik, Berbaizu Euskara Elkarteak, Arangoiti Plaza auzokideen taldetxoa eta Arangoiti ikastetxeko kideak batu gara, aurtengo ikasturtean zehar hainbat ekitaldi antolatuzeko asmoz eta gogoz.

Solasaldirako Arangoiti Plazan egingakoak berreskuratuko ditugu, hiru hilabetez behin eta jubilatuen egoitzan (Egileor kalean). Bertan, gonbidatu batetik gai baten inguruan hitza hartu eta, ondoren, guztion artean berbetan arituko gara gaiaren inguruan. Lehenengo

saioa Ignacio Villota idazleak gidatuko du. Gaia? Zoriontasuna. Nola izan zoriontsu egungo bizimoduan? Azaroaren 15ean (asteazkena) izango da, arratsaldeko 19:00etan. Bertan izango dugu elkarrekin gai horri buruz pentsatzeko aukera polita.

Zoriontsu izateko, dena den, abestea izango balitz aproposena? Galderak galdera, eskolako umeek prestatutako kantak entzuteko eta kantatzeko gogotsu gaude, txistularien laguntzarekin. Auzoan zehar eta hiru hilabetez behin egingo dugu. Kantak ezagutzeko, bihotza alaitzeko eta ahotsak batzeko aukera ederra. Lehenengo saioa azaroaren 24an (ostirala) izango da, hau ere arratsaldeko 19:00etan.

Jubilatuen egoitza eta ikastetxeko umeak aipatu ditugu baina edonorentzako elkarguneak dira, noski! Hala ere, gazteengan arretea gehiago jarritz, solasaldiak

antolatuko dira eskolako liburutegian. Arangoiti Plazan hizlariak helduak izan ohi dira; liburutegian, ordea, hizlari gazteak izango ditugu aurkezle, pasadan urtean Iraia Iturreri (Athleticeko entrenatzailea) edo Maite Sarasola (Elorri bertso eskolako bertsolaria) egon ziren moduan. Hau ere hiru hilabetez behin izango da eta abenduaren 15ean (ostirala) izango da lehenengo saioa. Lotu gabe dago, baina “20.000 especies de abejas” pelikulako antzezlea, Andere Garabieta, nahi dugu gure artean.

Eta, tarteka, bestelako ekitaldiak antolatzeko ere izan ditugu buruan. Horien artean, Haur-filosofia tailerra. Araneko plazan izango da, data zehazteke daukagu baina Gabonak baino lehen espero dugu. Zertan datza horrelako tailer bat? Haurrekin hurbildu eta proba ezazu...

Baditugu, beraz, bidean topo egiteko elkargune nahikotxo dagoeneko prestatuta. Ea baten batean kointziditzen dugun, atsegin handiz.



# OLDARRALDIAREN AURREAN EUSKARAREKIN BAT EUSKARAZ BAT

MANIFESTAZIOA  
AZAROK 4  
17:00  
EUSKALDUNA  
BILBO

**'K** EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA



# ZERGATIK EZ DA DEUSTU HERRI EUSKALDUNA?

*Duela 150 urte Deustu herri euskalduna zen. Goitik behera. Duela 80 urte euskara galbidean zegoen. Duela 50 urte ia zeharo desagertuta zegoen. Gaur berpizten ari da, auzolanean, elkarlanean, baina geldiro, motel, hizkuntza hondamendira eraman zuten arrazoiak ez baitira desagertu.*



Herritarrak Deustuko frontoian. Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma

Testua: Hektor Ortega

Egin dezagun 150 urte atzera. 1875ean, bigarren karlistadaren gerra-giro betean, Bizkaiko gobernadore zibilak, Francisco McMahon bilbotarrak, Alfonso XII erregearen proklama bat bidali zion Deustuko Udalari. Hamar ale igorri zizkion, leku publikoetan ipintzeko. Alegia, herritarrek jakin zezaten. Bada, kartel haiek euskara hutsez bidali zituen gobernadore zibilak Deustura. Espainiar agintari gorenak horrela jokatzeko, herri euskaldun hutsa izan behar zen, artean, Deustu.

Hala ere, euskararen aurka indar handiak ari ziren lanean. Alde batetik, Bizkaiko foru garaiko administrazio osoak, baita Deustuko Udalak ere, erdara hutsez sortzen zituen bere agiriak. Eta horrek euskara, eta euskaldun hutsak, gaztelaniaren mende uzten zituen. Bestetik, Bizkaia estatu espainolean integratu zutenean (1840an, lehenen-

go gerra karlistaren ostean) estatu hori bere lege, arau, ohitura eta hizkuntza ezartzera etorri zen, bertakoen orde: epaile erdaldunak, funtzionario erdaldunak, eskola erdara hutsez halabeharrez (1857-1970 bitartean indarrean egon zen Moyano legearen arabera, ezin zen irakaskuntza euskaraz egin)...

## Lehenengo erdaldunak, umeak

Laster igarri zen Deustun. 1883an aita Legarra etorri zen herrira predikatzerara. Sermoi haiek euskaraz egin zituen Legarrak, herrian euskara osasuntsu zegoen seinale. Baina jakingarri kezagarri bat utzi zuen: umeentzako beren-beregi egindako predikua gaztelaniaz izan zen. Deustuko umeak erdalduntzen hasita zeuden. Irakaskuntza orokortu egin zen eta herriko eskola eta ikastetxe guztietan erdara besterik ez zen erabiltzen.

XIX. mendea agortu baino lehen dokumentatu ditugu lehenengo deustuar erdaldun hutsak. Umeak ziren. Euskararen katea apurtzen hasi zen.

Sasoi hartan beste kontu bat etorri zen euskararen aurkako jardunari indar handiagoa ematera. 1880an Begoñan egin zituzten erromeria jendetsuen ildotik, Madrileko prentsan zabaldu zuten abadeek euskaraz karlisten alde predikatzen zutela “inpunitate osoz”, baliatuz erdaldunek ez zutela tautik ere ulertzen. Prentsa kanpaina bortitz horren ondorioz, Espainiako Gobernuak euskarazko sermoiak ere debekatu behar zituela iragarri zen. Ez zen gertatu, baina harrez gero euskara ez zen hizkuntza bat izan, subertsio karlistarako tresna baizik, zaintzapean eduki beharreko susmagarri arriskutsua.

Euskarazko sermoien debekua geroago etorri zen, Francoren armadaren garaipenarekin (1937). Artean euskara ez zen gehiago karlisten arma zitala (karlistak Francorekin zeuden), Espainiaren batasuna hausten zuen pozoi gaiztoa baino. Beraz, euskara lur azaletik desagertu behar zen. XX. mendearen hasieratik, oztopoak oztopo, abiatutako euskararen berpizkunde apa-  
la (literatura, prentsa, lehenengo ikastolak, administrazioan erabiltzeko lehenengo ahaleginak...) sustraitik ebaki ez ezik, erabateko eraso bat zuten diktadurak hizkuntzaren aurka, debekua arlo guztietara zabalduz, are pertsona izenataraino edo kanposantuetako harrietaraino ere.

XIX. mendearen amaieratik urratuta zegoen euskararen kateak azken krakatekoa egin zuen XX. mendearen erdialdean. Deustuko familia gutxi batzuek eutsi zioten euskarari, eta horiek isilpean eta etorkizunik gabe. Gainera, orduan gertatu zen gure herriko aldaketa demografiko handiena, milaka pertsona heldu baitziren beste leku askota-

rik San Ignazio, Ibarrekolandan, Arangoitin edo Deustun bizitzera. Gehienak erdaldunak ziren eta, jakina, ez zegoen biderik, modurik, arrakalarik, pertsona haiek euskarara hurbiltzeko.

### Umeak berriz ere euskaldun

Baina orduan ezustekoa gertatu zen. Euskal Herriko beste leku batzuetan bezala, zoro batzuek hizkuntza bazterreko, mespretxatu, debekatu, ezgai eta galdu hura berpizteko lan nekez eta arriskutsuari ekin zioten, isilpean. 1963ean etxe partikular batean hasi ziren, legez kanpo, ume eskutada batekin euskaraz irakasten. Deustuko ikastolaren hazia ziren. Heldu askok ere euskaldundu beharra sentitu zuten, eta lehenengo gau-eskolak abiarazi zituzten. Lan egin eta gero, euskara ikastera! Dena herri-bultzadaz, dena boterearen kontra.

Francisco Franco diktadorea hil eta erreforma politikoa heldu zen. Deustun ate berriak zabaldu zitzaizkion euskarari: irakaskuntza, koofizialtasuna, eskaltegiak... Baina beti geldiro-geldiro eta herriarren bultzadaren akuiluaz.

Gaur egun Deustualdeko derrigorrezko irakaskuntzan euskara da nagusi. Hori da Deustun hizkuntzari arnasa ematen dion birika, etorkizunerako giltza. Gainontzekoan, euskara bazterreko jarraitzen du gure herrian: osasun zerbitzuetan, merkataritza eta administrazio atal askotan, lan munduan, justizia arloan eta polizietan, kirolean, aisialdian... Legez ere, epaileek behin eta berriz argi uzten diguten bezala, euskara bigarren mailakoa da, gaztelaniaren mendeko, arrotz bere etxean. Euskara ez dago debekatuta, gutxituta baizik. Denak eramaten gaitu, nahi eta nahi ez, erdaraz egitera. Eta hizkuntzak ez badu jendartearen lekurik, gaitza da oso erabile-  
ran gora egitea, ezagutza zabalduta ere.



**Kalderapeko**  
**euskal kultur gunea**

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



# HERRIA IRABAZLE, DEUSTUKO KM BERTIKALEKO LEHENENGO EDIZIOAN

*Urriaren 8an ospatutako lasterketak kolorez, alaitasunez eta bizitzaz bete zuen Ugasko bidea, 100 partaideen langa hautsiz. Deustuk, beraz, aurtengo kirol-egunik garrantzitsuenetarikoa bizi izan zuen Kilometro Bertikalean, bertako komunitatea eta herri sena indartuz.*

**Testua: PREST!**

Igandea, goizeko 8ak. Eguna bare argitu zen Deustun, egun bikain bati bide emango zion eguzki distiratsurekin. Kirolariak Ugasko bideko arrapalan berotzen ari ziren bitartean, ikusleak Berrizko helmugara bidean ziren Kilometro Bertikalak plantatzen zuen erronka handiaren lehen ediziorako prest. Denak pozez eta adiskidetasunez betetako emanaldi baten esperoan.

“Gure helburua Deustun herrigintza egiteko kirol-espazio bat sortzea zen”, adierazi du Gaizka Suarez ekimenaren antolakuntzako kideak alaitasunez. Halaber, datozen edizioei begira hobetu beharreko gauzak badirela onartu arren, emaitzarekin “pozozik” dagoela onartu du Suarezek.

Ehun pertsona baino gehiagoko parte-hartzearekin, Jon Napalek lortutako denbora izan zen onena (5:35). Napalek gizonetzkoen sailkapena irabazi eta marka egin zuen hurrengo edizioetarako. Emakumezkoen sailkapenari dagokionez, Sara Gutierrez gasteiztarra izan zen azkarrena, ibilbidea 7 minutu eta 5 segundoan burutuz. Bestalde, SD Deusto taldeak taldekako sailkapena eskuratu zuen eta, beste behin ere, inguruko kirol-jardueretikiko duen konpromisoa erakutsi zuen.



**“Kristoren pikea!”**

Lasterketa luzeagoak egitera ohituta egon arren, Pare Gazte Talde Feministak babestutako sariko irabazleak gogotsu parte hartu zuen Kilometro Bertikalean. “Aurreko egunean egin nuen ibilbidea lagunekin, kristoren pikea izan dugu!”, adierazi du Sara Gutierrezek. Hala ere, tamalez emakumeen parte-hartzea txikia izan dela azaldu du gasteiztarrrak. Alde horretatik, hurrengo edizioko prestakuntza egokirako gomendio bat partekatu nahi izan du: “Iraupena lantzea derrigorrezkoa da. Horrekin batera, izterrak sendotzea komeni da ere, eskailerak edo kajoia erabiliz”.





**Testua eta argazkia:** Arangoiti, Deustu, Erribera eta Saniko Greba Komitea

Azaroaren 30ean Greba Feminista Orokorra deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Bizi dugun zaintza krisiari aurre egingo dion eta denon bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema publiko komunitarioa erdiesteko, aurrera urrats bat emateko balioko du honek.

Euskal Herriko Mugimendu Feministan urteak daramatzagu bizitzak erdigunean jartzearen beharra azaleratzen eta, horretarako, zaintza eskubide unibertsal gisa aitortzeko eskaera egiten. Guztiok baitugu bizitzako uneren batean zaintza jasotzeko beharra eta beraz, guztiok dugu zaintza lan horiek era jasangarriean aurrera eramateko ardura. Zaintza bizimodu duina eraikitzeko oinarria da: ez da unean uneko zerbait, zaintza bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa da. Etxean, bizikidetzari eusten dioten itzaleko arduetan, komunitatean, harremanetan, osasunean...

Euskal Herrian, egun, zaintzarako zerbitzuak erabat pribatizatuak daude. Azken 20 urteetan, euskal instituzioetatik sistematikoki pribatizatu dira ahal izan diren zaintza-zerbitzu guztiak; besteak beste, enpresa lagunen eskuetan jartzeko eta horietatik milioi askotako etekinak ateratzeko, zaintza hori jasotzen dutenen ongizatearen eta langileen lan-baldintzen kontura. Eta horrek, ezin du bere horretan jarraitu.

Bide honetan, Euskal Herrian abiarazitako prozesuak helburu izango dituen epe luzeko zein epe

motzeko aldarrikapenak bildu dira, duela pare bat aste aurkeztutako Herri Akordioan. Mugimendu sozial eta sindikalekin batera adostutakoa da, eta Mugimendu Feministan aldarrikatzen dugun Herri eredurantz urratsak emateko oinarri gisa ulertzen dugu. Bertan jasotzen ditugu zaintza sistema publikoaren alde, bizitza duinen alde eta zaintza langileen bizitza duinen alde egingo duten aldarrikapen zehatzak. Aldarrikapen horiek hainbat afera zeharkatu egiten dituzte, hala nola: etxebizitza, atzerritar legea, pentsioak, lanaldiak, errola, familia-eredua eta beste hainbat.

Gurean, Arangoitin, Deustun, Erriberan eta San Inazion, ez gara prozesuari urrunetik so geratuko. Gure auzoetan ere kaleak astinduko ditugu aldarrikapen hauek sozializatzeko asmoz. Asteak egon gara asanblada feministetan batzen eta greba komiteak antolatzeko saltoa egin dugu hilabete honetan zehar. Greba komiteak mistoak dira, hau da, gizonak ere deituak zaudete antolaketara; izan ere, zaintza eskubidearen aldeko borroka jendarte osoari begirakoa da. Zaintzearena denon ardura delako gaude deituak denok grebara, beraz, antolakuntzara ere bai. Hala ere, kontuan izanik prozesua bera lidergotza feministak ezaugarritzen duela.

Datozen asteetan barrutiko kaleak hartu eta lau haizeetara zabalduko ditugu.

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, azaroaren 30ean, denok Greba Feminista Orokorra!


# berbetan

PAUL BILBAOrekin

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi ohia

**“Botere judizialari ez dagokio hizkuntza**

*2010etik 2022ra  
Euskalgintzaren Kontseiluko  
idazkari nagusia izan zen Paul  
Bilbao. Getxotarra bada ere,  
Deustuko Unibertsitatean egin  
zituen bere unibertsitateko  
ikasketak, eta handik datorkio  
gure herriarekin duen  
harremana. Geroztik, bere  
ibilbide profesionala euskararen  
sustapenera bideratu du, hein  
handi batean.*





## *politika egitea; baina hala egiten ari da”*

### **Nola deskribatuko zenuke Euskalgintzaren Kontseilua?**

Euskalgintzaren bilgune bat bezala. Sortu zenean, 1997an, agerikoa zen euskalgintza atomizatuta zegoela. Alegia, erakunde zein elkarte asko ari ziren euskararen alde lanean modu desberdinetara, baina ez zuten bilgunerik; egoera horretatik abiatuta, Kontseilua sortu zen, nolabait esanda, euskalgintza osoaren bozeramaile izan zedin. Pertsonalki, niri egokitu zitzaidan 2010etik 2022ra idazkaritza nagusia hartzea.

### **Zein da bere xedea?**

Alde horretatik, nik beti Korrikaren adibidea jartzen dut. Euskal Herrian dugun ekimenik potenteanean, korrika egiten dugu. Zergatik? Presa dugulako, gure herria ahalik eta lasterren euskaraz bizitzea nahi dugulako. Horregatik, Kontseiluaren zeregina euskararen normalizazio prozesua azkartzean datza. Horretarako, sozialki eta politikoki hizkuntza politiketan eragiten saiatzen da.

### **Euskararen normalizazioa azkartzeko lan egiten duten 30 talde baino gehiagok osatzen dute Kontseilua. Nolakoa da elkarlan hori?**

Polita, argi eta garbi, batzuetan errazagoa eta beste batzuetan zailagoa. Aipatu duzun bezala, eragile oso ezberdinak daude (idazleak, erakundeak, AEK...), baina guztiak dute helburutzat euskararen normalizazioan ekarpenak egitea; hala ere, nork bere aldetik dihardu. Horregatik, oso handia da eragile horiek guztiak

ahots bakarra izatea, nahiz eta gero bakoitzak, bere aldetik, berea mantendu. Horrez gain, argi dago desberdintasunak kudeatu behar direla. Nire esperientziatik, gutxienez, ez nuke esango alderdi hori zeregin pisutsuena zenik. Azken batean, oreka bilatzen saiatzen zara.

### **Joan den maiatzaren 10etik, hainbat mobilizazio antolatu ditu Kontseiluak Bilbon euskararen aurkako oladarraldi judiziala salatzeke. Hala, azaroaren 4an manifestazio bat deitu du. Zer da egun horretan adierazi nahi duena?**

Ez dira epaile batzuek momentu zehatz batean hartu dituzten erabakiak. Euskararen aldeko neurri esanguratsu bat hartzen denean, jarraian, justizia auzitegiek diote hori ez dela posible. Beraz, ez gara ari epai isolatuez; fenomeno horren azken adibideetako bat EAEko udal legearen kasuan ikus dezakegu. Baina antzerako erabakiak jaso ditugu aurretik, Erandion edo Irunen, esaterako. Egoera oso larria da, botere judizialari ez dagokio hizkuntza politika egitea; baina hala egiten ari da. Horregatik Kontseiluak oldarraldi judizialaz hitz egiten du. Gainera, ikuspegia apur bat zabaltzen badugu, hori ez da bakarrik gertatzen ari Hego Euskal Herrian, baizik eta beste hainbat tokitan ere: Galizian, Katalunian, Valentzian... Euskal Herriari dagokionez, Euskadin gertatzen ari da, baina baita Nafarroan ere. Hortaz, azaroaren 4an jendeari gune bat eskaini zaio hori guztia salatzeke, haserre hori adierazteko eta, azken batean, euskaraz bizitzeko eskubidea dugula adierazteko.

**“Kontseiluaren zeregina euskararen normalizazio prozesua azkartzean datza”**

## “Nire burua euskalgintza- ren barruan kokatzen dut”

**Urte luzez aritu izan zara euskararen normalizazio-  
prozesuan lanean. Zerk eraman zintuen zure ibilbide  
profesionala norabide horretatik egitera?**

Esango nuke kezka betidanik izan dudala. Nik Eus-  
kal Filologia ikasi nuen. 20 urterekin dagoeneko  
AEK-ko irakaslea nintzen. Beraz, atzera begiratuta  
esan liteke betidanik izan naizela sentibera euska-  
raren gaiarekiko. Eta oraindik ere, nire burua euskal-  
gintzaren barruan kokatzen dut, nahiz eta beste lan  
batean aritu gaur egun.

**Joan den urriaren 3an Xabier Mendiguren Bereziartu,  
Kontseiluko lehen idazkari nagusi izan zena, zendu zen.  
2010ean, zuk hartu zenuen bere lekua 2022ra arte. Zer  
eskaini zion Mendigurenek euskalgintzari?**

Xabier Mendiguren izan zen euskalgintza bildu ho-  
rren lehen bozeramailea, lehen irudia. Momentu  
txarretan, Egunkariaren itxieran, esate baterako,  
berari egokitu zitzaion euskalgintzaren aurpegia izat-  
ea. Orduan, esango nuke irudi berri bat eman ziola  
euskalgintzari, irudi oso interesgarria eta bere iza-  
ra txertatzen jakin izan zuen. Guztiekin hitz egiteko  
eta guztiei erantzukizunak eskatzeko beharraz oso  
kontziente zen. Berak behin baino gehiagotan esan  
zuen, “Normalizazioa ez da lau pertsonaren gauza  
bat, guztiona da”.



**Alde horretatik, eragile euskaltzaleak  
ez ezik, norbanakoak ere parte hartzera  
deituta daude. Zergatik da garrantzitsua  
herritarren parte hartzea?**

Guztioi eragiten digun auzi bat delako. Hau da, botere judizialak esateak, adibidez, udaltzaingoei ezin zaiela euskararen ezagutza jarri, eragina izango du herritarrok euskarazko zerbitzuak eskatzen ditugunean. Izan ere, beti izan behar dugu kontuan langile batek euskara ezagutzen duenean, euskaraz bizi nahi duen herritarren eskubidea bermatuko duela.



**Azkenaldian, euskararekin zerikusia duten hainbat albiste izan ditugu, EAEko hezkuntza lege berria eta espainiar kongresuan erabiltzeko aukera, besteak beste. Zeintzuk dira, zure ustez, gaur egun euskarak dituen ahuleziak eta indarguneak?**

Gure indargunea jarraitzen du izaten komunitate trinko bat duela, gero eta euskaldun gehiago dituela. Ahulguneei dagokienez, zer esango nuke? Euskara beraien agenda politikoetan duten alderdiak euskararen kontra daudenak dira. Eta horren ondorioz, egun ez dago hizkuntza politika eragingarririk. Aipatu dituzun adibideen kasuan, kongresuko ondo dago sinbolikoki, baina horrek ez digu biztanleoi egunerokoan eragiten. Horretarako, esaterako, espainiar estatuak botere judizialaren lege nagusia edota administrazio publikoetako legea aldatzea beharko genuke. Hezkuntzaren kasuan, berriz, bi urte luze dira jada eztabaida hori hasi zenetik eta, nire ustez, azken egunetan elementu kezkarriak atera dira. Hezkuntza oinarriko zutabea da, izugarriko aukera ematen digu belaunaldi berriak modu naturalean euskalduntzeko. Beraz, herritarrei ukatuko zaie euskara ezagutzeko eskubidea? Horrexegatik, kezkarria da azken egunetan Legebiltzarrean gertatutakoa.


**Era berean, zeintzuk dira, ordea, etorkizunerako erronka nagusiak?**

Hezkuntzaz gain, badaude aparteko garrantzia duten beste zenbait alderdi: ingurune digitalak, pantailak... Geroz eta pisu handiagoa hartzen ari diren elementuak dira. Zorionez, azken horien kasuan herri ekimen politikak ateratzen ari dira, Pantailak euskaraz esaterako. Aisialdia beste lehentasun bat da. Alabaina, ohartzen gara gure gazteek ez dutela euskarazko erreferentziarik aisialdian, eta horrek eragina dauka erabileran. Alde horretatik, nire ustez, erabileraz hitz egiten dugunean beti biztanlearen bizkarrean jartzen dugu ardura; emaikiozu erabiltzeko baldintza egoki eta erosoak eta ni ziur nago egingo duela.

**Gizartea abiadura oso bizkorrean doa aldatuz eta, hein handi batean, homogeneousatuz. Joera horren aurrean nola iraun dezake bizi-rik euskarak?**

Prozesu hori aukera gisa edo mehatxu gisa ulertzean datza gakoa. Teknologia berriak, adibidez, hizkuntza gutxituentzako aukera izan daitezke jendearengana iristeko. Gaur egun, Euskal Herri osoko herritarrek ETB ikus dezakete, ordenagailuz bada ere. Globalizazioa hor dago, eta hori ezin dugu saihestu. Bestalde, argi dago arriskuak ere badaudela jarrera globalizatzaileen baitan. Alde horretatik, nik beti Islandiako kasua aipatzen dut. Bertan euren hizkuntza propioa dute, islandiera. Bada, kezka handiak dituzte ingelesa hartzen ari den pisuarekin. Horretarako, hizkuntza politika zuzentzen ari dira. Beraz, Islandia irla bat eta estatu propioa izanik horrelako zailtasunak badiutuzte, pentsa euskarak dituen arazoak bi estaturen menpe egonik. Edozelan ere, nire ustez gakoa joera globalizatzaile horren barruan guk gure tokia bilatzean datzala.

**“Gakoa joera globalizatzaile horren barruan guk gure tokia bilatzean datza”**



EUSKARA

## Euskararen aurkako beste epai bat

EAEko Justizia Auzitegi Gorenak euskaldunon hizkuntz eskubideen aurkako beste epai berri bat eman du. Izan ere, Udal legea euskararen alorrean gartzeko euskara lehenesten zuten zenbait artikulu utzi ditu bertan behera. Horrela, epaileek erantzuna eman diote Vox alderdiak 2022an jarritako helegite bati. Hala ere, 30 eguneko epea izango du Eusko Jaurlaritzak helegitea Espainiako Auzitegi Gorenean aurkezteko. Euskalgintza Kontseiluak, bere partez, "oldarri judicialaren" adibide berritatz jo du erabakia. Horrekin lotuta, azaroaren 4an Bilbon deitutako manifestazioaren garrantzia gogorarazi du.

OBRAK

## Zorrotzaurreko Palmondoaren Etxea eraitsiko dute

Deustuko auzoak agur esango dio ehun urte baino gehiagoko eraikinari, jabeen eta Biurban kooperatibaren arteko akordio baten ostean. Izan ere, kooperatibak prezio libreko 33 etxebizitza eraikitzea aurreikusi du, horrek dakarren eraisketa-rekin. Akordio horren arabera, Biurbanek bere gain hartuko ditu eraikina eraisteko kostuak, eraikinaren errehabilitazioa ez baitelako bideragarria. Eraikina oraindik eraitsia izan ez den arren, aurreikusita dago hurrengo asteetan lan horiek aurrera eramatea. Horrenbestez, Deustuko Erriberak beste auzoko estandarte historiko handi bat galduko du Zorrotzaurreko hirigintza-planaren baitan.

KULTURA

## Poetek plaza hartu zutenekoa

Urriaren 10ean Deustun Itziar Ugarte, Julen Apella, Dafne Gonzalez eta Oihane Zuberoa Garmendia poeta gazteek plaza eta hitza hartu zuten 'Poeta gazteak plazara' ekimenaren baitan. Gogoeta interesgarriak plazaratu zituzten bertan: poesia elkarrekin ehuntzen den ekintza gisara eta ariketa intimotzat; edo poesian, edukia eta formaren arteko harremana; eta ahotsa eta hitzaren, idatzikoa, kantatua eta esanaren arteko ezberdintasunak. Sarien argi-ilunak ere izan zituzten mintzagai, baita poesiara gerturatzeko bide anitzak ere: irakurketa, irakasleen eragina, inguruko babesa, barne-gatazkak deslotzeko edo pentsamendua adierazteko bideen bilaketa...














HEZKUNTZA

## Elorrieta - Erreka Mari institutuak eraikin berri bat izango du

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 9 milioiko aurrekontu partida bat onartu du Elorrieta - Erreka Mari Lanbide Heziketako Zentroan eraikin berri bat egiteko. Hain zuzen ere, eraikuntza berria 2017an eraitsitako eraikin zaharra zegoen orubean kokatuko da. Lau mila metro karratu baino gehiagoko azalerarekin, eraikinak beheko solairu bat izango du ikastetxeko zerbitzu orokorretara bideratuta, eta beste hiru solairu irakaskuntzarako. Eusko Jaurlaritzak 2024rako aurreikusi ditu obren hasiera, eta 18 hilabeteko iraupena izango dute lanek. Ikastetxeak, dagoeneko, 50 urte baino gehiagoko ibilbidea du eta 20 Heziketa Ziklo ezberdin eskaintzen ditu. Gainera, azken urteetan formakuntza duala erregimen partekatuan izeneko aukeraren aldeko apostua egiten ari dira.





Urtea: 2003

Txema Luzuriaga


## *Pedro Arrupe pasabidea*

Deustun dauden zubiez egiten ari garen ibilbidean, Salbeko zubiarekin hasi genuena, gaur honako zubi hau ikusiko dugu. Oinezkoentzako pasabide bat izanik, Deustuko Unibertsitatea Guggenheim Museoarekin eta Abandoibarrako etorbidearekin lotzen ditu. Jose Antonio Fernandez Ordoñez arkitektoak egin zuen, eta Beñat Luzuriagak egindako argazki honetan zubiaren erdialdea jartzeko erabilitako maniobrak ikus ditzakegu.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez  
**Prest!**-en  
tel. 94 447 10 42  
billbokoaldizkariak@gmail.com


△ ∇ △ ∇ △  
TATTOO STUDIO  
  
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda  
tlf. 640 903 311  
instagrama: @azala.tattoo

**YVES ROCHER**  
FRANCE  
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

**Optica**  
*Avenda*  
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**  
Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

**BREST**  
kafetegia  
Blas de Otero, 5  
Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**  
Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com 

  
Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4


*Yoki Berrri*  
Taberna  
Good vives!  
Luzarra, 6 - Deustu  
@tokiberritaberna

1924tik Deustun  
*Tintoreria*  
**La Flor**  
Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29  
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu 

**artez**  
euskara zerbitzua   
**Probatu herrizki.eus**  
ANDROID APP Google play  App Store   
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA 

 Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net  
**Matxintxu**  
aek ■ euskaltea  
Matrikula zaitez! 

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak  
Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo  
tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**  
HORTZ KLINIKA  
*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855  
Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia  
PADI  
OSAKIDETZA  
Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**  
*Sabin*  
Erlojudenda  
Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
CERRAMIENTOS  
*Deitu eta Ikusi!!*  
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK  
Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
elekttrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23  


Nolakoa izan da zure  
esperientzia Deustuko  
Kilometro bertikalean? Zer  
aldatuko zenuke hurrengo  
edizio baterako?



**Asier  
Deustu**

Esperientzia ona orokorrean,  
giro aldetik batez ere.  
Zerbait aldatzekotan,  
lasterketaren formatua  
aldatuko nuke. Erlojupekoa  
izaten jarraitu arren, talde  
txikiak egingo nituzke edo  
minuturo atera, lasterketa  
gehiegi ez luzatzeko batez  
ere.



**Sara  
Gasteiz**

Esperientzia oso positiboa  
izan da eta lagunen artean  
kirola sustatzeko aukera  
bikaina. Zalantza barik  
larunbatean izan beharko  
zen garaipena ganoraz  
ospatzeko.




**Idoia  
Deustu**

Bikaina, bai proba polita  
zelako, baita giroagatik ere.  
Beharbada animazio gehia-  
go eskatuko nuke aldaparik  
gogorrean. Hortaz aparte,  
ez nuke ezer aldatuko, erre-  
pikatzeko irrikaz nago!



**Iker  
Ibarrekolanda**

Nahiz eta aldapak oso  
gogorrak izan, asko  
disfrutatu nuen. Gainera,  
lagunekin egitea aparteko  
motibazioa izan zen. Nik  
ez nuke ezer aldatuko,  
hori bai, hurrengo urtean  
jende gehiago animatuko  
nuke parte hartzera,  
koadrilakoekin edota  
bakarka.



**Beñat  
Leioa**

Esperientzia oso polita izan  
da Deustuko herria elkartuta  
ikusitako nuelako eta baita  
Euskal kultura nabarmendu  
zelako. Aldatuko nukeen  
gauza bakarra aurreko  
egunetan publizitate gehiago  
egitea eta egunean zehar  
ere herritik ikustea izango  
litzateke.



**Leire  
Deustu**

Esperientzia polita izan  
da KM bertikalean  
parte hartzea, herriko  
jendearekin batera eta  
giro onean edozein aldapa  
geratzen da motz! Ea  
hurrengo ediziorako neska  
gehiago animatzen garen!




# harkua bete herria

>> HEZKUNTZA

## BA AL DU EUSKARAK LEKURIK IKUS-ENTZUNEZKOETAN?

Testua: Itxaso Sainz



Zenbat aldiz esan diogu geure buruari zeinen ederra izango den euskaraz bizitzea? Baina hori bai zaila, arraioa! Argi dago euskaldun izatea ez dela batere erraza; are gehiago, bizi baldin bagara Bilboren moduko testuinguru erdaldun batean. Tamalez, euskaraz bizi nahi dugun herritar ugariok noiz edo noiz pairatu behar izan ditugu geure hizkuntzarekiko jarrera ezkorrak nahiz desatseginak. Nork ez du inoiz begirada txarren bat nabaritu udalean izapideren bat egitean, edota erantzun zakarra jaso tabernan garagardoa eskatzean? Ziur aski, gehiegi izan gara baztertuta sentitu izan garenok...

Gainera, euskaraz komunikatu nahi izateagatik jasaten ditugun eragozpenak ez dira kaleetara muga-tzen. Izan ere, euskarazko edozein eduki kontsumitu nahi dugula, une oro trabak topatzen ditugu; batez ere, ikus-entzunezkoetan. Hamarkadak igaro dira 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea edota 1992ko Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta indarrean jarri zirenetik. Hori bai, non gelditu dira jaso zituzten esanak? Bertan beren-beregi aipatzen dira euskal herritarrok euskaraz ere artatuak izateko eskubideaz zein ikus-entzunezkoak geure hizkuntzan jasotzekoaz. Dena den, oraindik ere bide malkartsu honen gailurra laino trinko batek estaltzen du.

Bueno, gatozen berri onen bat esatera, ezta? Egia da ibilbide gorabeheratsua dugula euskaldunok; baina, tira, harro egoteko aurrerapausoak ere eman ditugu. Ezer baino lehen, "Pantailak euskaraz" mugimendua aipatu nahi nuke: 2021ean sortutako ekimena, euskaraz egun ikus-entzunezkoetan duen presentzia tamalgarriak arduratuta. CIES inkestaren arabera, 1990ean Euskadin haurren % 70ek marrazki bizidunak euskaraz ikusten zituen; gaur egun, berriz, pantaila kuota ez da % 0,3ra iristen. Alabaina, guztiok jakitun gara; zeharo aldatu da edukiak kontsumitzeko era. Orain, dena momentuan "behar" dugu eta horrek oztopoak dakartzio euskarari, hizkuntza handiek dituzten adina baliabide ez dugulako une oro egunean egoteko.



Bai, erronka itzela da, baina positiboak izan gaituzten! Zertxobait behintzat... Pentsa ezazue... nork esango zigukeen Tolkienen hitzak euskaraz entzungo genituela? Norenak eta Tolkienenak! Zinemaldiko sail ofizialean azpidatziak euskaraz ere egongo zirela? Edota berezko plataforma ("Primeran") izango genuela sarean dauden euskarazko ikus-entzunezkoak nahieran kontsumitzeko? Hamaika ikusteko jaiok gara, eta horixe laster gertatzeko irrikaz gaude, noski!

Argi dago, geure hizkuntzaren etorkizuna bermatu nahi izanez gero, ezinbestekoa dugula pantailetan agertzea. Eta horretan gabilta; apurka-apurka, euskara dagokion tokia bilatzen ari da. Oraindik ere ikus-entzunezkoetan eskaintza duinaren zain gaude. Hori bai, aldaketa behingoz gerta dadin, denok norabide berean jo behar dugu, euskaltzaleok zein erakundeek, euskararekin bat egin dezagun, euskaraz bat izan gaituzten.



# BILBO KALLING

Lander Belauategui



Esan dik  
ilea tente  
eukitzeko  
hoberena  
gamina  
dela!

Uau!

## URRUTITIK ERE, BETI PREST!

Urriko zenbaki honetan, aldizkariaren ibilbide historikoaz hitz egin dugu erreportajearen sekzioan. Baina gurea bezalako hedabide bat irakurleei zuzenduta dagoela kontuan hartuta, zergatik ez jarri orain haiei begira? Prest! Deustun soilik irakurtzen da? Nora arte iristen da deustuarron hilabetekaria?

2005eko uztailean, Prest!-en 50. zenbakia argitaratu zen. Efemeridearen garrantzia dela eta, artean hedabidearen zuzendari zenari, Hektor Ortega, elkarrizketa motz bat egin zioten. Hala, Ortegak eskainitako erantzunen artean, bada atentzioa deitzen duen bat, eta horrela dio: “Laster munduko edozein tokitik irakurri ahalko da Prest!”.

Gaur egun, Uriola webguneari esker, edonork munduko edozein tokitatik aldizkaria irakurri badezake ere, asko dira oraindik etxean jasotzen dutenak. Zehatzago esanda, hilabetero inprimatzen diren 2500 aleetatik gehienak Deustualdean eta Bilbo inguruan banatzen dira. Hala ere, zonalde horretatik harago, Deusturekiko lotura gure edukien bitartez izan edo mantendu nahi dutenak ere badaude. Horrexegatik, gaurkoan aldizkaria Bizkaitik kanpo jasotzen duten zenbait irakurleekin izan gara, Prest! Zergatik irakurtzen duten azaldu dezaten.

### ARITZ IPIÑA · Gasteiz

Dagoeneko Gasteizen ia hamarkada bat daraman arren, deustuarra dugu Aritz. Gurasoek Deustun zuten etxea saldu zutenetik gutxi etorri ohi den arren, aitortu digunez gustora asko jasotzen du aldizkaria. “Izugarritzko poza ematen dit herriaren informazioa jasotzeak eta bizirik dagoela ikusteak; alegia, idiosinkrasia propioa daukala”.

Alde horretatik, gehien gustoko dituen aldizkariko sekzioei buruz galdetzerakoan, elkarrizketak eta argazki zaharrak nabarmentzen ditu. “Asko gustatzen zaizkit egiten dituzuen elkarrizketak, horietako asko ezagunak direlako. Horretaz gain, ni uen historialaria izaki, *Argazkiak Berbetan* sekzioa oso gustokoa dut, baita Hektor Ortegaren sekzio historikoa ere; azken finean herriaren gauza berriak

ikastea delako”. Gainera, irakurle fidela ez ezik, Prest!-en ere agertutakoa da Aritz; hain zuzen ere, 2012an Renon zegoela, *Gureak Kanpoan* atalean agertu zen.



**13. DENBORALDIA**

**P6**

PABELLÓN N°6

ARTE ESZENIKOAK

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

PROGRAMAZIOA

## JON ANDONI LEKUE · Berlin

Gernikarra izatez, 18 urterekin Deustura etorri zen Jon Andoni familiarekin batera. Unibertsi-tateko ikasketez gain, bizi proiektua ere hemen egin zuen hainbat urtez, bere burua gaur egun “gernikar deustuarra” bezala deskribatzeraino. 2002an atzerrira joan zen bizitzera eta egun Berlinen bizi da.

Horren urruti bizitza harpidetza zergatik mantendu duen galdetuta, Lekuek oso argi du erantzuna. “Jaiak, inauteriak, albiste txikiak... Horretaz gain, jendea ere ikusten duzu. Horregatik guztiagatik, harpidetza eskatu nuen Berlinetik eta, sakonago edo ez sakonago, hilerorak irakurtzen dut. Izan ere, kanpoan zaudenean, beti daukazu interesa jakiteko zer pasatzen den Deustun. Eta, horretarako, zer hobeto Prest! Baino?”.

Aldizkariaren edukiari dagokionez, Hektor Ortegaren artikulua eta elkarrizketaren sekzioa onartu digu dituela gustokoen. Alde horretatik, Prest!-en bitartez Deustun aurrera eramaten



ari diren zenbait proiektuen berri izanak poza eragiten diola aitortu du. “Elorri bertso-eskolaren kasuan, esaterako, nik ez nuen hori bizi izan. Eta esaten duzu: joe, zelako mugimendua sortu duten”.

## JOSU ELIZONDO · Gasteiz



Denbora luze darama Josuk Deustutik kanpo, bi hamarkada baino gehiago jada. Edozelan ere, horrek ez dio herriarekiko lotura edo atxikimendua gutxitu. Gainera, aldizkariaren hasieratik irakurle fidela izateaz gain, Prest! eta Berbaizuren sorrera lehen eskutik bizi izan zituen, bertan parte hartu zuelako. Ondoren, Euskal Filologia ikastera joan zen Gasteizera; geroztik, Arabako herri desberdinetan egin du bizitza.

Bi edo hiru astean behin gurasoak bisitatzen edo lagunak etortzen bada ere, aldizkariak Deustu gertu mantentzeko era bat dela aitortu digu. “Gisa honetako hedabideek aportatzen dutena zera da: tokiarekiko loturatxo bat, batez ere urrun bizi garenontzat. Alegia, noizbehinka ikusten duzu ezagunen bat argazkiren baten edo lagunen batek zeozer idazten du. Baita betiko lokalen presentzia, Bordatxo bezala, zein Deustuko argazki zaharrak. Hala, nahi eta nahi ez, lotura hori mantentzen laguntzen du”.



# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## Hamburgesa leherkorra

Lorea Tabernak duela hainbat hamarkadatik izena mantendu duen arren, Markok eta Maytek duela urtebete hartu zuten taberna. Geroztik, zeharo aldatu dute tabernaren funtzionatzeko era eta giro aparta lortu dute Basabeko taberna bakarrean. Zeozer hartzeko toki bikaina izateaz gain, aparteko bazkari eta afariak eskaintzen dituzte.

**Prezioa:** 9,90€

**Zailtasuna:** txikia

**Denbora:** 15 minutu

### Kontu batzuk

Taberna astelehenetik igandera dago irekita. Eskaintzen dituzten plateren artean, hamburgesa hau eskatuena den arren, beste hainbat hamburgesa, bokata, sandwix eta bokata dituzte aukeran. Horretaz gain, pintxo ugari eta askotarikoak dituzte egunero. Sukaldeko ordutegiari dagokionez, bazkarietzako 12:00etatik 17:00etara irekitzen dute eta afarietzako, berriz, 19:00etatik 22:30etara.



### LOREA TABERNA

Madariaga etorbidea, 71

Astelehenetik ostiralera 7:30-23:00

Larunbat eta igandetan 8:00-00:00



## Nola egin?

Lehenik eta behin, haragi txikitua honako osagaiekin nahastu: oreganoa, piperbeltz beltza, glutenik gabeko gurina, 7 arrautza, gatza, baratxuri saltsa eta osagai sekretua. Bigarrenik, kipula zati txikietan moztu eta sartain edo kazolan jarri su baxuan olio eta gatz apur batekin. Azkenik, lehendabiziko nahasketari hamburgesaren forma eman eta gainontzeko osagaiak jarri.

## OSAGIAK

*100% txahal okelako  
bi hamburgesa*

*Letxuga*

*Tomatea*

*Kipula karamelizatua*

*Gazta erdiondua*



**Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!**

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean

**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**DANEL LAUZURIKA ERKIAGA**  
*Tsundokeroa*

## SARAGUETA

Sarritan pentsatu izan dut agertu bezain arin desagertzen direla euskal literaturan maiteenetako ditudan pertsonaiak: *Jenisjoplineko* Nagore Vargas, *Denboraren izerdia* ahaztuko Jon Ezenarro... Koldo Izagirrek birritan baino ez digu oparitu Nikola Agirre *Metxa* aittitte errebeldea. Hori dela eta, pozarren nago Aingeru Epaltzak beste aukera bat eman diolako Edu Saragueta kalamidadeari.

Euskal literaturan gutxi izan dute generoen uretan murgiltzeko Epaltzak besteko atrebentzia: *Ur uherrak* westerna, *Erresuma eta fedea* trilogia historikoa, *Mendi-joak* bilduma... Ez naiz hasiko Epaltza deskubritzen, baina beti iruditu zait haren lanari ez diogula behar besteko baliorik eman. Zenbat eta zenbat dira euren karrera literarioan liburu beti bera behin eta berriz idazten dutenak? Ondo egiten bada, ez da meritu makala! Hala ere, aukeran, nahiago eremu deserosoetan sartu eta airoso irteteko Epaltzaren joera.

Bi liburu: *Rock'n Roll* (2000) eta *Erretzaille damutuen konpainia* (2022). Bi garai: batetik, mende bukaerako Iruñea abuztu postsanferminero beroan; bestetik, gazte millenialez, heldu depresibo gimnasioadiktoz eta etorkinen bazter-azoz osatutako Hiri Buruzagi garaikidea. Generoa, bera: beltz-beltza (ez nahastu poliziakoarekin edota enigmazkoekin). Eta Edu Saragueta senezko kazetaria.

Saragueta desastrea. Beti arazo potoloen erdian, beti bere burua kaltetzeko prest. Jipoiak jasotzeko talentua eta sexu-grina, ez bata ez bestea ez zaizkio apaldu azken hogeai urteotan. Eta garrantzitsuena dena: umoreak gogor dirau Edurengan (ondorioz, irakurleak gogotik egingo du barre). Aproposa galtzaileen inguruko literatura gustoko duenarentzat.

*Gaia: Udazkena*

*Doinua: Zer da gaur Donostian*



**AIMAR SORAZU ROTETA**  
*Elorri bertso-eskolako kidea*

Irail amaierako  
egun mitikoak  
azkenengo eguzki  
izpien brinkoak  
zuhaitzak ere dira  
hosto erorikoak  
elkartu ohi dira bi  
persona tipoak  
Taberna zaleak ta  
manta azpikoak.

Epela bilakatu  
ohi zaigu freskura  
beherantza dihoa  
ya temperatura  
gehiago ilunduaz  
ordutik ordura  
Eta baietz gerora,  
nahiz ta egin duda.  
Zuzenean igaro  
udatik negura.



# BERBALAGUN

Praktikatu Euskaraz Gurekin

*Erraza da*

- ✓ ZURE NEURRIRA
- ✓ HURBIL
- ✓ LAGUNARTEAN
- ✓ DOHAINIK
- ✓ ABANTAILAK

**Berba lagun** 607 530 132   
 praktikatu.eus/blog/bilbo  
 berbalaguna@aek.eus



Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka

# 10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Hastapenean bezala  
50 eurotako saski  
bakarra. 23 ekoizleren  
9 produktu ekologiko  
eta konbentzionalak  
nahasian.

## Eskatu saskia!



errigora.eus

Saski  
bakoitzaren  
balioaren %25  
euskalgintzara  
bideratzen da

50€



# EGIN ZAITEZ BABESLE!

Babestu Prest! aldizkaria:

prestharpide@gmail.com



**Prest!**